

Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA

## Karbonokrazia

K

LIMA ARI DA BEROTZEN. Eta kasu honetan ez gara planetaren eguratsean gertatzen ari diren aldaketaz soilik ari. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) diplomaziak CO<sub>2</sub> isurketak jaisteko

martxan dituen negoziazioetan ere tenperatura igotzen ari da, eta munduko kaleetan ere giro sutua nabaritzen da. Pasa den urtarrilean Belem do Parán bildu zen Mundu Gizarte Foroak Kopenhagerako (Abenduaren 7tik 18ra) deialdi berezi bat egin zuen, gizarte mugimenduen presioa egiteko karbonokraziaren aurrean, hots, gehien kutsatzen duten herrialde eta enpresen aurrean, Ama Lurrean bizi diren pertsonen arteko klima-justizia aldarrika dezagun. Eta Kopenhagen, bikingoen hiriburuan, mundu guztiko aktibistak bilduko dira, duela 10 urte Seattle-ko batailan gertatu zen moduan, Mundu Merkataritzaren Erakundearen batzarrean, orain NBEk munduko gizarte zibilaren ahotsa entzun dezan. Asmoa ez da, Seattlen antzera, NBEren konferentziari boikota egin eta porrota eragitea, baizik eta ekintza globaleko egun bat antolatu gobernu nagusiak kezkatu eta arreata deitzeko.

KOPENHAGEN. Jutlandiako penintsulan karbonokrazia eta justizia klimatikaren arteko lehia antzeztuko da, modu gordinean. Alde batetik karbono isurketen komertzializazio eta merkatuaren bitartez



INIGO AZKONA

“kutsatzeko eskubideak” (sic) mantendu nahi dituztenak eta bestetik teknologia kutsakorrek, inseguruak eta sostengatu ezinak kritikatzeko dituztenak. Klima aldaketaren politika eta agendan Kopenhageko konferentzia (COP-15 ingelesezko akronimoan) hitzordu garrantzitsua dugu, Kyoto eta gero, 2012. urtetik aurrera zer-nolako murrizketak eta zer-nolako herrien arteko kuotak negoziatzen ari dira-eta. Eta ematen du akordiorik gabe pasako dela, herrialde kutsakorren ez baitituzte euren negutegi efektuko gasen isurketak geldiarazi nahi.

Txina edo India historikoki ez baitira arazoaren erantzule eta AEBek, Europako Batasunak, Japoniak, Australiak edota Kanadak hazkunde ekonomikoa karbonoaren erreketarekin guztiz lotuta ikusten baitute. Murrizketak onartzen dira baina epe luzera, G-8ak L’Aquilan uztailean iragarri zuen gisan (%50a 2050rako) eta ez da hori zientzialariek (IPCC) gomendatzen dutena ezta gizarte mugimenduek *urbi eta orbe* exijitzen dutena ere. Eta Kopenhagen ez bada akordiorik lortzen? Petrolioaren eta gasaren *gailurrera* heltzeak ezinbesteko norabidea markatzen du, karbonorik gabeko erudura abiatzea, alegia. Mundu guztian ari dira, trantsizio hirietatik karbono-ondoko herrietako esperientzia berriak antolatzen. Hori da bidea. ▢

«  
Mundu guztian ari dira,  
trantsizio hirietatik karbono-  
ondoko herrietako esperientzia  
berriak antolatzen.

Hori da bidea  
»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Hartu duen Victoria Eugenia (izenetan ez dugu asko aurreratu) ikusten genuen Okendo kaleko egoitzaren ataritik parez pare, urrun hala ere. Kaputxinoen egoitza hartan ez zegoen argi askorik, beharrik gazteak bista onekoak ginela. Gainera, bezeroen artean ez genituen optikoak falta. Bertatik Egiako Ramona-Eneara joan behar izan genuelarik, are eta ilunagoa hartu behar izan genuen egoitza, Iberdueroren onerako. Soto esaten zioten hiri ikuilu bat. Ametzagainara egin genuelarik argitzen hasi zitzaigun lanlekua, baina ordurako zenbaiten begiek betaurrekoen beharra ezin alboratu. Tabakalera ondo-

## ARGIA

koan denboraldi bat egin eta Lasartera jo genuen. Lehengo astean ezagutu dut oraingoa. Harritu egin nau bertako erosotasunak, hesirik gabeko eremuan guztiak elkarren ondoan borobilean taldeka lanean ikusteak. Orainartekoetan argiena. Orkestrea Sinfonikoak berak Victoria Eugenia emandako kontzertuak ez ninduen hainbeste harritu bere handian, oraingo argieroek, oholtzara kantatzera igo ziren jabeek merezitakoa izan balute bezala. Autokudeaketaren abantailak. Denborak, berez ez du deus dagokion lekuan ematen, saiatu egin behar izaten da denboraz nahi den lekura iristeko. Eta ARGIA bidean da, badoa nahi bidetik. Denbora lekuko. ▢